**Ebazpena, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetarako Zuzendariarena, zeinaren bidez aurretiko kontsulta publikoaren mende jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas sortzea.**

**RESOLUCIÓN de la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, por la que se somete a consulta pública previa la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas.**

Euskal Autonomia Erkidegoak profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideetako arloan dituen eskumenak Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan oinarritzen dira. Xedapen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan:

Las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de desarrollo de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. Así, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de:

*22.- Lanbide-elkargoak eta lanbide tituludunen jarduera, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik eragin gabe. (…)*

*22.- Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución. (…)*

Eskumen hori baliatuta eman zen tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea. Lege hori profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak. garatu zuen.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley vasca 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, que fue desarrollada por Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

18/1997 Legearen 41.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, profesionalen kontseiluen sorkuntza Eusko Jaurlaritzak dekretuz onartu beharko du, lanbide bereko elkargo profesional guztiek behar bezala ordezkatua eta egiaztatua eskatzen dutenean.

De conformidad con lo establecido en el artículo 41.3 de la citada Ley 18/1997, la creación de consejos profesionales precisará decreto del Gobierno Vasco a petición suficientemente representativa y debidamente acreditada de todos los colegios profesionales de la misma profesión.

Bestalde, profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 33-36. artikuluak kontseilu profesionalak sortzeko prozedura arautzen du. Hain zuzen, eskatzaileek aurkeztu behar duten dokumentazioa zehazten du.

Por su parte, los artículos 33 a 36 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, regula el procedimiento para la creación de Consejos Profesionales, determinando, en concreto, la documentación a presentar por las personas solicitantes.



Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T6BY1-WG74
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: LORETO OSA OCON | 2024/11/19 16:40:33

Ildo horretan, 2022ko martxoaren 21ean, sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean Arabako eta Gipuzkoako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak aurkeztutako eskaera Finka-administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala izeneko Kontseilu Profesionala sortzeko.

A estos efectos, el 21 de marzo de 2022 tuvo entrada en el Registro General del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno solicitud presentada por el Colegio Territorial de Administradores de Fincas de Gipuzkoa y Álava para la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzaren titularra da profesionalen kontseilua sortzeko eskaerari buruzko espedientea izapidetzeko organo eskuduna, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

La persona titular de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos es el órgano competente para la tramitación del expediente relativo a la solicitud de creación del consejo profesional, según lo establecido en el artículo 11 del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Eskumen hori baliatuta, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak zenbait kudeaketa egin ditu, kontseilua sortzeko espedientea izapidetzen jarraitzea egokia den ala ez erabakitzeko.

En desarrollo de tal competencia, por la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos se han realizado algunas gestiones conducentes a determinar la conveniencia de proseguir con la tramitación del expediente de creación del consejo.

Bestalde, Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 34 aurreikusten du dagokion kontseilua sortzeko prozeduran gaiaren arabera eskumena duen sailak parte hartu behar duela, sorkuntzaren komenigarritasuna eta interes publikoa baloratuz eta erabakiz. Ildo horretan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren aldeko txostena jaso da 2024ko urriaren 2an.

Por otra parte, el artículo 34 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales prevé la necesidad de que en el procedimiento de creación de un consejo participe el Departamento competente por razón de la materia, valorando y decidiendo sobre la conveniencia e interés público de la creación. En este sentido, se ha recibido informe favorable del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana en fecha 2 de octubre de 2024.

Horren guztiaren ondorioz, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzak komenigarritasuna eta interes publikoa egiaztatuta dagoela deritzo, aipatutako kontseilu profesionala sortzeko prozedura izapidetu aurreko urrats gisa.

Como consecuencia de todo ello, la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos cree acreditada la conveniencia e interés público como paso previo a la tramitación del procedimiento de creación del consejo profesional mencionado.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen

El artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las

(aurrerantzean, “6/2022 Legea”) 11. artikuluak herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta arautzen du. Izapide hori xedapen orokorrak egiteko prestaketa-fasean sartzen da.

Disposiciones de Carácter General (en adelante, “Ley 6/2022”) regula la consulta previa a la ciudadanía, que se subsume en la fase de preparación de disposiciones de carácter general.

Artikulu horren 2. atalak jasotzen duen legez, “*herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen*”.

Como refiere el apartado dos del citado artículo, “*se trata de un trámite de interacción con la ciudadanía” a fin de que “todas las personas potenciales destinatarias de la disposición tengan la posibilidad de emitir su opinión, durante plazo suficiente y no inferior a quince días, y con carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico*”.

Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-organoak egingo du aldez aurretiko kontsulta, eta “*alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten*” (ik. 6/2022 Legearen 11.3 artikulua).

El órgano directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general realizará la consulta previa “*invitando expresamente a la ciudadanía a pronunciarse acerca de la información, que se extenderá sobre la necesidad y oportunidad de aprobar la norma, sus objetivos, los problemas que se pretenden solucionar y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias*” (v. artículo 11.3 de la Ley 6/2022).

Izapide horrek parte-hartzearen printzipioaren eskakizunei erantzuten die –6/2022 Legearen 4 i) artikulua–. Printzipio horren arabera “*herritarrei aktiboki entzuteko eta haiekin elkarlanean aritzeko neurriak ezarriko dira, araua onartzeko prozeduran parte-hartzea bermatzearren, gobernantza kolaboratiboan oinarriturik*. (…)”.

La evacuación de dicho trámite se enmarca en las exigencias del principio de participación –artículo 4 i) de la Ley 6/2022–, en virtud del cual “*se establecerán medidas de escucha activa y colaboración ciudadana para garantizar su participación en el procedimiento de aprobación de normas, basadas en la gobernanza colaborativa*. (…)”.

Hain zuzen ere, ebazpen honen iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan jarrita, bideratzen da aldez aurretiko kontsultaren izapidea.

Precisamente, mediante anuncio de esta resolución en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se pretende evacuar el trámite de consulta previa a la ciudadanía.

Horretarako, hamabost (15) egun balioduneko epea ezartzen da herritarrek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edota ekarpenak egin ditzaten.

A tal efecto, se establece un plazo de quince (15) días hábiles para que la ciudadanía realice cuantas sugerencias o aportaciones tenga por conveniente.

Hori horrela, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

En consideración a lo anterior, y en virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del

Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno,

**EBATZI DUT**

**Lehena**.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea Finka-administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko prozedura, dagokion arau-testua idatzi baino lehen.

**Bigarrena.-** Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi izanez gero, ebazpen honen eranskinak adierazitako alderdiei buruz duten iritzia eman dezakete, 20 egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**RESUELVO**

**Primero.-** Someter a consulta pública, y con carácter previo a la redacción del texto normativo correspondiente, la tramitación de la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas.

**Segundo.-** La ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Resolución en el plazo de 20 días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Vitoria-Gasteizen/En Vitoria-Gasteiz

**TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETARAKO ZUZENDARIA**
**LA DIRECTORA DE RELACIONES CON LAS ADMINISTRACIONES LOCALES Y REGISTROS ADMINISTRATIVOS**

**Loreto Osa Ocón**

**ERANSKINA**

**1.- Arau-proposamenaren bitartez konpondu asmo diren arazoak.**

Finken Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko eskatu duenaren arabera, bi elkargo eskatzaileetako finka-administratzaileentzat eta, oro har, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat ekarriko dituen hobekuntzetan oinarritzen da sorrera.

Eskatzaileek beharrezkotzat jotzen dute Finka Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala eratzea, kontseilu hori osatzen duten profesionalen artean sinergiak bilatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Finka Administrazioaren lanbidearen ordezkaritza eta defentsa gorena izateko, eta Eusko Jaurlaritzarekiko eta gainerako administrazio publikoekiko interkomunikazio-kanalak errazten laguntzeko.

Era berean, uste dute horrek erraztu egingo dituela komunikazio- eta informazio-bideak administrazio publikoek helaraz diezazkioketen arau-proiektuei buruzko informazioa emateko orduan, hobeto bideratuko dituztela proiektu horien aplikazioan sor daitezkeen gorabeherak, hobeto defendatuko dituztela gizartearen interes eta premia orokorrak, eta hobeto ordezkatuko dituztela finka-administratzailearen lanbidea eta haren kolektiboa.

**2.- Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.**

Aurretiazko kontsulta publikoaren xede den arau-proposamenak behar-printzipioari men egiten dio, zeina 6/2022 Legearen 4. artikuluaren a) atalean hala baitago definituta: “arau-ekimena interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du (…)”.

**ANEXO**

**1.- Problemas que se pretenden solucionar con la propuesta normativa.**

Según la persona solicitante de la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas, la creación se sustenta en las mejoras que supondrá en el servicio tanto para las personas administradoras de fincas que forman parte de los dos colegios solicitantes como para las personas consumidoras y usuarias en general.

Las personas solicitantes entienden necesario dotarse de un Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas que permita la búsqueda de sinergias entre los distintos profesionales que lo conformen, que ostente la máxima representatividad y defensa de la profesión de la Administración de Fincas en el País Vasco, así como que contribuya a facilitar los canales de intercomunicación tanto con el Gobierno Vasco como con las demás Administraciones Públicas.

Del mismo modo, entienden que ello contribuirá a simplificar los cauces de comunicación e información a la hora de informar sobre proyectos normativos que se le puedan someter por parte de las distintas Administraciones Públicas, a canalizar mejor las incidencias que pudieran suscitarse en la aplicación de estas, a defender mejor los intereses y necesidades generales de la sociedad y a representar mejor a la profesión del Administrador de Fincas y a su colectivo.

**2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación.**

La propuesta normativa que se somete a consulta pública previa obedece al principio de necesidad, conforme este es definido en el artículo 4, apartado a), de la Ley 6/2022: “la iniciativa normativa debe estar justificada por una razón de interés general (…)”.

Zentzu honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak komenigarritzat eta interes publikokotzat jo du kontseilu profesional hori sortzea, 2024ko urriaren 2ko txostenean.

En este sentido, el Departamento de Vivienda y Agenda Urbana ha considerado conveniente y de interés público la creación del consejo profesional en cuestión, en su informe de fecha de 2 de octubre de 2024.

Beste aldetik, kontseilu profesional bat sortzeko, xedapen orokor bat onartu behar da nahitaez, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 41.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Por otro lado, la creación de un consejo profesional requiere, necesariamente, de la aprobación de una disposición de carácter general, de conformidad con lo establecido en el artículo 41.3 de la ley 18/1997, de 21 de noviembre.

**3.- Egin asmo den arau-proiektuaren helburuak.**

**3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.**

Lehenik eta behin, proposamenaren helburua da aurkeztutako eskaera ebaztea, 18/1997 Legearen 41. artikuluan jasotako aurreikuspena betez

En primer lugar, el objetivo de la propuesta es resolver la solicitud presentada en observancia de la previsión contenida en el artículo 41 de la Ley 18/1997.

Gainera, bi elkargo eskatzaileak osatzen dituzten pertsonei beren interesak eta ordezkaritza defendatzeko tresna bat eman nahi zaie.

Además, se pretende dotar a las personas que componen los dos colegios solicitantes de un instrumento que defienda sus intereses y su representación.

Azkenik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea bilatzen da, elkargokideek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez.

Finalmente, se busca contribuir a la protección de los intereses de los consumidores y usuarios respecto de los servicios prestados por las colegiadas y los colegiados

**4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

**4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**

Ebazpenean aipatutako legezko eta erregelamenduzko manuak kontuan hartuta, eta proposatutako irtenbide arautzailearen justifikazioa kontuan hartuta, ezinbestekoa da xedapen orokor bat egitea kontseilu profesional interesduna sortzeko.

En atención a los preceptos legales y reglamentarios citados en la resolución, y en consideración a la justificación de la solución regulatoria propuesta, es imprescindible elaborar una disposición de carácter general para crear el consejo profesional interesado.

Aukera ez-erregulatzaileak, praktikan, zera ekarriko luke: erakunde eskatzaileak ez lituzkeela eskuratuko kontseilu profesionalei erreserbatutako ahalmenak, eta ez lukeela argitaratuko testu arautzaile bat, zeina,

La alternativa no regulatoria supondría, en la práctica, que la entidad solicitante no adquiriese las facultades reservadas a los consejos profesionales y no publicar un texto

amaitu dugun bezala, interes publikokotzat hartu dena.

normativo que, como hemos concluido, ha sido considerado como de interés público.